

MARIE CURIEREN LANBIDEAREN AJEAK




Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Paris, 1898. Uztailean, Marie eta Pierre Curie senar-emazteek artikulu bat argitaratu zuten ordura arte ezezaguna zen elementu baten berri emanez. Polonio izena jarri zioten, Mariaren jaioterria gogoan. Urtea amaitu baino lehen, bikoteak beste elementu kimiko berri bat aurkeztu zuen: radioa.

Mariekin prozesuaren fase bakoitzaren emaitzak jasotzen zituen zehatz-mehatz laborategiko koadernoetan. Etxean ere bazituen koadernoak bertako gorabeherak zehaztasun zientifikoz, modu obsesiboan, biltzeko. Esaterako, Pierren alkandora egiteko erabilitako oihalaren prezioa dakigu koadernoari esker. Irène alaba zen Mariaren etxeko aztergai kutuntetako. Alabaren buruko diametroa aldiro neurtzen zuen kurrikak erabiliz, eta emaitza txukun idatzi. Polonioa aurkeztu zuten hilabete hartan bertan, Irènek “gogli gogli go” esan zuen eta 1899ko urtarrilean hamabost hortz-hagin zituen.

Sukaldea ere laborategia zen Nobel saridun bikoitzarentzat. 1898an bertan, andere-mahatsen jelea prestatu ondoren, errezeta/esperimentu hau idatzi zuen: “Lau kilo fruta hartu nituen, eta beste lau kilo azukre kristaldu. Dena hamar minutuz irakin ondoren, nahastea galbahe fin batetik pasatu nuen. Kalitate handiko hamalau flasko jele lortu ni-



Marie Curie 1925ean, Parisko Unibertsitateko laborategian lanean, errezeta ez jangarriak prestatzen.

tuen, ez zen gardena geratu eta primeran mamitu zen”.

Marie Curie ez zitzaion bururatu bere aurkikuntzekin errezetak egitea, baina beste batzuei bai. Urtetan, osagai erradioaktiboak erabili zituzten hortzetako pasta edota laxanteak ekoizteko. Hil aurreko urteetan Marie Curiekin

haserrea adierazi zuen produktu horiek behar adinako arretaz erabiltzen ez zirelako. Harentzat berandu zen arretaz jokatzeko. Marie Curie-ren dokumentu gehienak, errezetak barne, oso erradioaktiboak dira oraindik eta berunez forratutako kaxetan daude gordeta. ■



BIOVEGETALIS

Zer da erregeen hirugarren oparia?

Errege Magoek hiru opari eraman ei zitioten Jesus jaioberriari: urrea, intsentua eta mirra. Garbi dugu lehenengo biak zer diren. Eta bestea? Mirra erretxina lurrintsua da, Afrika ipar-ekialdean, Arabian eta Turkian naturalki hazten den *Commiphora myrrha* zuhaitzaren izerdia. Oso mingotsa du zaporea, baina Antzinaroan gai preziatua zen, lurrinak

eta ukenduak egiteko erabiltzen baitzen. Substantzia horrek propietate sendagarri asko ditu; marrantaren, disenteriarene eta parasitoen aurka erabiltzen zuten. Eta, I. mendean Diskoridesek *De materia medica* lanean jaso zuenez, abortu-eragilea ere bada mirra. Akaso Errege Magoek mezu subliminal bat helarazi nahi zieten guraso berriei? ■